

irakurri · zabaldu · borrokatu

# **GAZTEONTZAKO**

LAN ESKUBIDEEN GIDA



## **LAB sindikatuarekin harremanetan jartzeko:**

### **ARABA**

GASTEIZ Fermin Lasuen, 13-behea PK 01013  
945 25 58 77 gasteiz@lab.eus

LAUDIO Nervión, 1-2 PK 01400  
94 672 27 14 laudio@lab.eus

### **BIZKAIA**

BARAKALDO Aldapa, 12-solairuartea PK 48901  
94 418 01 25 barakaldo@lab.eus

BASAURI Particular de Araba, 3-behea PK 48970  
94 449 81 21 basauri@lab.eus

BILBO Errekalde Zumarkalea, 62-behea PK 48010  
94 470 69 00 bilbo@lab.eus

DURANGO Komentu kalea, 9 behea PK 48200  
94 681 85 09 durango@lab.eus

ERANDIO San Agustin plaza, 3-1. PK 48950  
94 467 01 56 erandio@lab.eus

GERNIKA Juan Kaltzada, 4-2. PK 48300  
94 625 39 41 gernika@lab.eus

### **GIPUZKOA**

DONOSTIA San Bladi, 1-behea PK 20013  
943 45 86 40 donostia@lab.eus

EIBAR Bidebarrieta, 10-1. PK 20600  
943 82 04 89 eibar@lab.eus

ORERETA Nafarroako Hiribidea, 61-2. Ezk PK 20100  
943 34 45 41 orereta@lab.eus

TOLOSA Gorosabel Pasealekua, 29-1. PK 20400  
943 67 00 26 tolosa@lab.eus

ZARAUTZ Zigordia, 11-1. Esk. PK 20800  
943 89 43 74 zarautz@lab.eus

### **IPAR EUSKAL HERRIA**

BAIONA 7 Coursic Karrika PK 64100  
05 59 59 50 20 baiona@lab.eus

### **NAFARROA**

ALTSASU Arkangoa kalea, 4-2. PK 31800  
948 56 41 75 altsasu@lab.eus

IRUÑEA Arga ibaia kalea, 12-14 behea PK 31014  
948 22 11 30 irunea@lab.eus

LIZARRA Gustavo de Maeztu, 4 PK 31200  
948 55 08 33 lizarra@lab.eus

## **ernai gazte antolakundearekin harremanetan jartzeko:**

harremanak@ernaigazte.cc


www.ernaigazte.cc

irakurri • zabaldu • borrokatu

---

**GAZTEONTZAKO**  
LAN ESKUBIDEEN GIDA





## **1. AURKEZPENA**

### **2. LAN MERKATUAN SARTU AURRETIK KONTUAN HARTZEKO**

- 2.1. Aldi baterako lanerako enpresak (ABLE)
- 2.2. Eta kontraturik gabe lan egin behar badugu?
- 2.3. Eta autonomo bezala lan egitea proposatzen badigute?
- 2.4. Eta bekaduna bagara zer?

### **3. LAN KONTRATUA**

- 3.1. Kontratu finko edo mugagabeak
- 3.2. Aldi baterako kontratuak
  - 3.2.1. Obra edo zerbitzu jakin baterako kontratua
  - 3.2.2. Behin behinekoa (ebentuala) ekoizpenaren gora beherengatik edo zereginen pilaketagatik
  - 3.2.3. Ordezkapen lan kontratua
  - 3.2.4. Laneratze kontratua
- 3.3. Prestakuntza kontratuak
  - 3.3.1. Prestakuntaz eta formakuntza kontratua
  - 3.3.2. Praktika kontratua

### **4. LAN KONTRATUA SINATUTA DUGUNEAN**

- 4.1. Aldi baterako kontratazioa mugagabe bilakatu daiteke
- 4.2. Probaldia
- 4.3. Hitzarmen kolektiboa
- 4.4. Nomina eta ordain saria
- 4.5. Lanaldia
- 4.6. Laneko osasuna
- 4.7. Lan eskubide eta betebeharrak

### **5. LAN KONTRATUEN AMAIERA**

- 5.1. Kaleratzea: 20 egun erreklamatzeko
- 5.2. Likidazioa eta finikitoa
- 5.3. Langabezia prestazioak

### **6. EUSKAL HERRIAN LAN ETA BIZI, HEMEN ERABAKI!**

# 1. AURKEZPENA

**Etorbizun iluna** parez pare duguna. Kriariaren aitzakipean herri langilearen eskubideen murrizketei ekin diote etengabe kapitalaren metaketa helburu duten jauntxo eta burgesek.

Esplotazio sistema honen ondorio zuzena Herri Langilearen bizkarrean jartzen ari dira. Langileak, langabetuak, autonomoak, ikasleak emakumeak, migranteak... **denok osatzen dugu euskal langile klasea** eta denok gaude kapitalaren ofentsiba berri honen jopuntuan.

Etorbizuna iluna bada, **gazteok aurrez aurre dugun panorama beltza da** oso. Kolektibo bereziki zapaldua gara, eskulan merkea eta merkantzia erraza garelako. Prekarietatea zer den oso ondo ezagutzen dugu gazteok zoritxarrez, prekarietatea langile gazteon odolaz idazten ari dira egunero egoera honen erantzuleak.

Kapitala eta enpresariak klase interesak defendatzeko antolatuta daude. Boterearen kudeaketa egun haien eskuetan dago eta langileok haien aberastasuna metatzen jarraitzeko merkantzia besterik ez gara.

Egoeraren larritasunak, gazteon interesak nahiz **klase interesak borrokatzeko dugun beharrak ERNAI eta LABen arteko aliantza osatzera eraman** gaitu. Ekinbide bateratua garatzeko, klase interesak defendatu eta borrokatzeko antolatu behar gara. Prekarietatea da egiten zaigun eskaintza. Burujabetza gure hautua.

Burujabetza lortu bidean, aliantzaren lehen ondorioa da eskuartearen duzun GIDA hau. Egungo lan merkatuaren arauak gure aurka eraikiak direla dakigun arren, **beharrezkoa da jakintza minimo eta oinarrizko bat izatea**. Gure eskubideak zeintzuk diren, zer dugun borrokatzeko... ezagutzeak berebiziko garrantzia du.

Gazteok lan merkatuan "bakarrik" sartzen garela sinetsarazi digute. Horrela sentitu gara. Bada beraz, egoera honi buelta emateko garaia. Bestelako eredu laborala eraikitzeko, egungo ereduaren gure eskubideak borrokatu behar ditugu. **Eta borroka hau irabazteko kolektiboa izatea ezinbestekoa dugu**.

**Borroka da dugun bide bakarra**. Aurrez ere borrokatu izan ditugu orain ezabatu nahi dizkiguten eskubideak, eta soilik antolatuz, borroka kolektiboz eta borroka sindikalez lortuko dugu lan merkatua iraultzea.

Euskal Estatu sozialista, feminista eta euskalduna eraikitzeko haututa egin dugu eta langile eta gazte borrokatu lortuko dugu!



## 2. LAN MERKATUAN SARTU AURRETIK KONTUAN HARTZEKO

Lanpostu baten bila ari garenean hainbat dira kontuan izan behar ditugunak:

Emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunaren printzipioa da nagusi. Horrenbestez, **bi sexuetako bat justifikaziorik gabe bazterten duten lan eskaintzak ilegalak dira.**

Gure herri eta auzoetan dauden **Enplegu zerbitzu publikoek lan-bitartekotza izenez ezagutzen den zeregina bete behar dute.**

**Lan-bitartekotza** izaera publikoko zerbitzu bat da. Helburua, inskribatzen garen pertsonen lan-eskariak enpresarien eskaintzekin kontaktuan jartzea da. Oraingo enplegu zerbitzu publikoen eraginkortasunik eza frogatuta badago ere, garrantzitsua da bertan inskribatzea. Izan ere, **enplegu zerbitzu publikoetan inskribatutako pertsonak soilik hartzen dira enplegu eskatzaile gisa.** Beraz, inskribatuta ez bagaude ez gaituzte lan-eskatzaile kontsideratzen.

Prestazio bat kobratzen ari bagara, derrigorrezkoa da inskribatuta egotea eta inskripzioa aldizka berriztatzea; bestela, prestazioa kenduko digute zigor gisa.

Lan-bitartekotzan, enplegu zerbitzu publikoek **kolokazio agentziak eta ABLEak (Aldi Baterako Lan Enpresak)** baimendu ditzakete. Baimendutako erakunde horiek ezin dute ezer kobratu zeregin hori betetzeagatik, ez enplegua eskatzen dugun pertsonari ezta enpresei ere: **lan-bitartekotza doakoa da.**

### 2.1. ALDI BATERAKO LAN ENPRESAK (ABLE)

ABLEak sistema kapitalistaren logikaren adibide argiak dira. Lan eskuaren trafikoa burutzen dute inolako oztoporik gabe. Kolokazio agentzia gisa jarduteaz gain, langileak kontratatze eskumena dute, gero beste enpresa baten esku jartzeko. Horrela, ABLEetatik kontratatutako langilea bigarren enpresa horren esku uzten da (“enpresa erabiltzailea”) bere pertsonal propioaren langilea izan gabe, eta kontratazioaren helburu den aldi baterako lana gauzatzeko.

ABLEak “eskura jartzeko kontratua” deritzana sinatzen du enpresa erabiltzailearekin. Beste alde batetik, ABLEak aldi baterako lan kontratu bat idatziz hitzartu behar du langilearekin. Kontratu mota jarraian azalduko ditugunetako edozein izan daiteke.

ABLEek ezin gaituzte kontratatu bereziki arriskutsutzat jotzen diren lanak egiteko.

ABLEek kontratatutako **langileon eskubideak enpresa erabiltzailearen hitzarmen kolektiboak ezartzen dituenak dira**, eta baita garraioa eta enpresa horretan egon daitezkeen beste zerbitzu kolektibo batzuk (jantokia) ere.

Enpresa erabiltzailean **iraunkorrak diren lanpostuak kontratazio hauen bidez betetzea iruzurra da**, eta gauza bera gertatzen da kontratazioaren helburu ez diren lanak gauzatzera behartzen bagaituzte. Egoera hau beraz, ilegala da eta erantzuleak ABLEak eta enpresa erabiltzaileak dira.

Enpresa erabiltzailearen ordezkariak sindikalak ABLEen bidez kontratatutako pertsonen interesak ere ordezkatzeko beraz, hitzarmen kolektiboaz informatzeko, egiten ari garen lanak egitea dagokigun edo ez jakiteko... ez izan zalantzarik eta **ordezkari horiekin kontaktatu**.

## **2.2. ETA KONTRATURIK GABE LAN EGIN BEHAR BADUGU?**

Gazteok lan merkatuan sartzen garenean lan kontratua zer den apenas dakigu. Baina argi izan behar dugu lan kontraturik sinatu ez badugu ere, horrek ez duela esan nahi lan harremanik ez dagoenik. Are gehiago, **idatzizko kontraturik ez dagoenean, legediak dio lan harremana mugagabe eta lanaldi osokotzat jotzen dela**.

Beraz, idatzizko kontraturik ez izateak ez du esan nahi ez dagoela kontratu hori erregulatzen duen arau edo legerik: **hitzarmen kolektiboa eta lan arauak baldintza berdinetan aplikatzen dira**, eta enpresak gizarte segurantzaren alta eman beharko digu.

Nolanahi ere, argi dago, lan-kontratuak ez formalizatzeak enpresaren interes bati erantzuten diola, hau da, **lan legedia ez betetzeko interesari**. Gizarte segurantzaren alta ez ematea eta horri dagozkion kotizazioak ez ordaintzea izaten da arrazoietakoa bat. Egoera honi "ezkutuko lana" deitzen zaio (edo beltzean lan egitea).

Horrelakoetan, **garrantzitsua da lanean egon zarela erakusteko balio duten dokumentuak eta frogak gordetzea**, zure eskubideak erreklamatu ahal izateko. Frogak albaranak, fakturak, lan plangintzak... izan daitezke, bertan lan egiten ari garela frogatzen duen edozer.

Halaber, **oso garrantzitsua da jakitea ze hitzarmen kolektibo** aplikatzen den enpresan. Horretarako errazena sindikatura jotzea da.

Argi izan behar dugu kontraturik ez izateak ez dakarrela ditugun eskubideak ukatuak izatea eta beraz, hauek lortzeko borrokan indibidualki aritu baino, hobe sindikatuarekin harremanetan jarri, dugun arazoa konpartitu eta **borroka kolektibo bati hasiera ematea**.

## **2.3. ETA AUTONOMO BEZALA LAN EGITEA PROPOSATZEN BADIGUTE?**

Autonomo erregimenean lan egiten badugu, ordutegiak, lan orduak, soldatak... guk ezar ditzakegu, eta justifikatu beharreko bakarra lanaren etekina edo emaitza da. Hau da, etxe bat margotu behar badugu, autonomo gisa dugun konpromisoa etxea epean eta behar bezala margotzea da.

**Garatu beharreko lanak besteen konturako enpleguaren ezaugarriak baditu, iruzurra da** langilea autonomoen erregimenean lan egitera behartzea.

Besteen konturako enpleguaren oinarritzko ezaugarriak hauek dira, besteak beste: lana gauzatzeko formari dagokionez enpresaren agindupean egotea; diziplina baten menpe egotea, normalean



enpresaren instalazioetan; lanaldi eta ordutegi (gutxi gorabehera) jakin bat bete behar izatea... Guzti hauek dira besteen konturako enpleguaren oinarritzko ezaugarriak eta, dena den, ez dira elementu denak batera eman behar.

Iruzur honen bidez, enpresek lan-araudiaren eta hitzarmen kolektiboaren aplikazioa saihestu nahi dute, eta horrekin batera, enpresari dagozkion betebeharrak langileen bizkar utzi, hala nola gizarte segurantzako alta eta kotizazioen ordainketa gure kontura izatea autonomoen erregimen gisa. Kaleratzerik ere ez litzateke egongo, ez dagoelako berezko kontraturik.

Horrelakoetan, **garrantzitsua da besteen konturako enplegu bat dela erakusteko balio duten dokumentuak eta frogak gordetzea**, zure eskubideak erreklamatu ahal izateko.

#### **2.4. ETA BEKADUNAK BAGARA ZER?**

Bekak ikasketak burutzeko laguntza ekonomikoak dira, eta horren truke ezin digute edozein lan egiteko eskatu, ez beka ematen digunaren alde, ezta hirugarren baten alde ere. Hori da bekadunoi lan harremanik ez aitortzearen arrazoa.

Baina errealitatea zein den badakigu. Beraz, bekaren deialdian erregulatzen dena kontuan izan baino, errealitatean gertatzen dena da kontuan izan behar duguna lan-harremanik benetan ote dagoen erabakitzeke.

Beka dugunoi agintzen zaizkigun **zereginek prestakuntza-proiektzio eskasa badute, baina ezinbestekoak badira lantokiko jarduera normalaren garapenean, hau da, bekadunok gauzatu ezean bertako pertsonalak gauzatu beharko balitu, orduan lan-harremana da eta izaera hori exijitu beharko zaio**. Horretarako, ez zalantzarik izan, sindikatura jo.

## **3. LAN KONTRATUA**

Prekarietate egoera iraunkorrean bizi gara gazteok. Eta batzuetan, lan kontratua izate hutsagatik prekarietate egoerarekin amaituko dugula uste genezake, baina zoritxarrez ez da horrela izaten.

Lan-kontratua akordio bat da. Honen bidez, kontratatutako pertsonak enpresaren kontura eta bere agindupean betetzen du bere eginkizuna ordainsari baten truke. Lan-kontratua sinatzen denean, enpresak **alta eman behar digu Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean**; gainera, 10 eguneko epean Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratu behar du kontratua.

Lan-eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko, oinarritzko araudia Langileen Estatutua deritzon legezko testuan dago. Langileen Estatutua oinarritzko eskubideak arautzen dituen legedia da eta horregatik, **oso garrantzitsua da jakitea zer hitzarmen kolektibo aplikatzen den enpresan**, hori izango baita bertako langileen oinarritzko soldata, ordutegia... arautzen dituen.

Bestalde, kontratuen tipologia bi era nagusitan sailka daiteke: **iraupenaren** arabera (kontratu mugagabeak eta aldi baterako kontratuak...) eta **lanaldiaren** arabera (lanaldi osoko kontratuak edo

lanaldi partzialekoak).

### 3.1. KONTRATU FINKO EDO MUGAGABEAK

Ez du bukaerako eperik, eta hortaz, bukatutzat soilik kontratatutako pertsonaren borondatez edo enpresak bere kabuz eta modu justifikatuan –legearen ikuspuntutik- hartutako erabakiagatik eman daiteke. **Horrenbestez, lan-kontratu mugagabe bat enpresaren erabakiz bukatzen bada hori justifikatzen duen legezko kausarik gabe, kaleratze bidegabe edo baliogabea izango da.**

### 3.2. ALDI BATERAKO KONTRATUAK

**Aldi baterako kontratuak legalak dira baldin eta kontratazioaren helburu den lanak ere aldi baterako izaera badu.** Horrenbestez, ez da aski kontratazioaren bi alderdiak ados egotea; lanak aldi baterako izaera duela justifikatu behar da (zerbitzu jakin baterako, ekoizpenaren gora beheren arabera edo ordezkapena). Gaur egun, aldi baterako kontratazioaren bolumen handi bat iruzurrezkoa da, hau da, enpresa-jardueraren lan iraunkorrak betetzeko erabiltzen da.

Kontratu hau dugunoi kontratu mugagabea duten langileon **lan-eskubide berdinak** dagozkigu, hau da, ezin da aldi baterako kontratuaren izaera erabili lan-baldintza okerragoak justifikatzeko.

Aldi baterako kontratuen artean, gehien erabiltzen direnak honako hauek dira:

#### 3.2.1. OBRA EDO ZERBITZU JAKIN BATERAKO KONTRATUA

**XEDEA:** autonomia propioarekin, enpresa barnean obra jakin bat gauzatzea edo zerbitzu jakin bat betetzea. Ez litzateke justifikatuta egongo enpresaren ohiko lanak edo lan arruntak gauzatzeko.

**IRAUPENA:** kontratatutako lana bukatzen den arte. Kontratuak iraupen jakin bat ezartzen badu, gutxi gorabeherako iraupentzat jo behar da, kontratuaren bukaera determinatzen duena kontratatutako lanaren bukaera baita. Edonola ere, gehieneko iraupena **3 urte izango dira, gehi beste 12 hilabete** hitzarmen kolektiboan hala adosten bada. **Epe horiek amaituta, kontratua mugagabe bihurtzen da.**

#### 3.2.2. BEHIN-BEHINEKOA (EBENTUALA) EKOIZPENAREN GORABEHERENGATIK EDO ZEREGINEN PILAKETAGATIK

**XEDEA:** enpresaren jarduera arruntaren barruan egonda ere, zereginen pilaketari edo produktu-eskarien gehiegizko bolumenari aurre egitea.

**IRAUPENA:** beharrak sortzen diren unetik kontatuta, **12 hilabeteko epe baten baitan gehienez 6 hilabete** (hitzarmen kolektiboan adosten bada, luzatu daiteke).

#### 3.2.3. ORDEZKAPEN LAN KONTRATUA

**XEDEA:** lanpostuaren erreserbarako eskubidea duten pertsonak ordeztea, betiere kontratuan zehazten badira izena eta ordezkapenaren zergatiak.

**IRAUPENA:** printzipioz zehaztugabea da; beraz, ordezkaturako langilea lanera itzuli edo lanpostuaren erreserbarako eskubidea galdu arte iraungo du. Hutsik dagoen lanpostu bat betetzera zuzendutako kontratuaren kasuan, iraupena aukeraketa prozesuarena izango da, baina 3 hilabete mugatzat hartuta; denbora horretan, ezin da beste bitarteko kontraturik egin prozesu berbererako.

### 3.2.4. LANERATZE KONTRATUA

**XEDEA:** langabeak kontratatzea. Administrazio publikoak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek burutu ditzakete, bai interes orokor edo sozialeko obra edo zerbitzuak egiteko, edota lanbide-esperientzia eskuratzeko modu gisa.

**IRAUPENA:** kontratatutako pertsonak ezin dute horrelako kontraturik errepikatu hiru urte igaro arte, baldin eta kontratu horrek 9 hilabete baino gehiago iraun badu azken 3 urteetan.

## 3.3. PRESTAKUNTZA KONTRATUAK

Lan-kontratu mota hau guri, gazteoi, dago zuzendua. Asmoa, teorikoki, lanbide prestakuntza eta praktikak burutzeko aukera ematea da. Prestakuntza kontratuen **ezaugarri nagusia duten izaera prekariora** da, hau da, soldatak txikiak dira eta enpresarien interes nagusia lanpostuak kostu txikian betetzea izaten da, prestakuntza eskaintzea baino gehiago.

### 3.3.1. PRESTAKUNTZA ETA FORMAKUNTZA KONTRATUA

**NORENTZAT:** 16 eta 25 urte arteko gazteontzat. Dena den, Espainiar Estatuko langabezia-tasa %15etik gorakoa den bitartean, 30 urterainoko gazteak kontratatu ahal izango dira modalitate honekin. Beste betekizun bat lanbide-kualifikaziorik ez izatea da.

**LANALDIA:** ezin da lanaldi partzialean egin. Lanaldi efektiboa ezin daiteke izan lanaldiaren % 75etik gorakoa lehenengo urtean, eta % 85etik gorakoa bigarren urtean. Gainerako denbora, gutxienez, prestakuntzara zuzendu behar da. Prestakuntza hori enpresaren kontura eman behar da.

**ORDAINSARIA:** proportzionala lanaldi efektiboarekin eta hitzarmen kolektiboan horrelako kontratuentzat ezarritakoaren araberakoa. Dena den, ezin da inoiz ere Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) baino txikiagoa izan, kasu honetan lanaldi efektiboarekiko proportzionala, hau da prestakuntzarako emandako denbora kenduta. Honek zuzenean LGS baino gutxiago jasotzea dakar.

**IRAUPENA:** gutxienez urtebete eta gehienez 3 urte.

### 3.3.2. PRAKTIKA KONTRATUA

**NORENTZAT:** unibertsitateko titulazioa edo lanbide heziketako erdi edo goi mailako titulazioa dugunontzat, ikasketak amaitu osteko 5 urteetan; 7 urte desgaitasunik ditugun gazteontzat.

Kontratu mota honetan 2 urtez baino gehiagok kontratatuta egon ez izana eskatzen da (enpresa berean edo beste batean, titulazio berberetatik edo profesionaltasun ziurtagiri berberetatik; edo enpresa berean lanpostu berbererako, titulazio edo profesionaltasun ziurtagiri desberdina izan arren). Dena den, denboraldi batez, espainiar Estatuko langabezia-

tasa % 15etik jaitsi arte, baimenduta dago kontratu horiek 30 urtetik beherakoei ere egitea, ikasketen amaieratik 5 urte edo gehiago igaro arren.

**FORMA:** eredu ofizialean, datu hauek adierazita: kontratatutako pertsonaren titulazioa, kontratuaren iraupena eta bete beharreko lanpostua edo lanpostuak.

**LANALDIA:** lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa izan daiteke.

**SOLDATA:** hitzarmen kolektiboan ezarritakoa izango da. Hitzarmen kolektiboak ez badu ezer ezartzen, ordainsaria ezin daiteke izan lanpostuarentzat finkatutako ordainsariaren % 60tik beherakoa lehen urtean eta % 75etik beherakoa bigarrenean.

**IRAUPENA:** gutxienez 6 hilabete eta gehienez 2 urte. Kontratu bukatzen denean, enpresak ziurtagiri bat eman behar du, honakoa azalduz: praktikaldiaren indarraldia, betetako lanpostua edo lanpostuak, eta horietako bakoitzean gauzatutako zeregin nagusiak.

## 4. LAN KONTRATUA SINATUTA DUGUNEAN

Dauden lan kontratu desberdinak ikusi ditugu. Eta behin hauetako bat sinatuta dugula, buruan izan beharreko bestelako kontu batzuk aipatzea ere beharrezkoa daigu:

### 4.1. ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA MUGAGABE BILAKATU DAITEKE

Gezurra dirudien arren, aldi baterako kontratazioa mugagabe bilakatu daiteke. Noiz?

-Bi aldeen arteko akordioagatik.

-Hitzarmen kolektiboan horrela araututa dagoelako.

-Aldi baterako kontratua iruzurra denean, enpresako lan finko edo iraunkorrak egiten direla ezkututzen duelako.

-Aldi baterako gehienezko iraupena gainditu arren lanean jarraitzen denean.

-Kontratu edozein delarik ere, gizarte segurantzaren erregistratu ez zaituztenean (alta eman) legeak probaldirako onartzen duen denboragatik.

-Lanpostu berbererako edo honen baitako beste baterako etenik gabe edo etenekin aldi baterako bi kontratu sinatu direnean (ordezkapen kontratuak, laneratze kontratuak eta prestakuntza-kontratuak izan ezik). 30 hilabeteko epean guztira 24 hilabete baino gehiagoko bi kontratu hauen sinatzea burutu beharko litzateke, bai zuzenean edota ABLE baten bitartez.

### 4.2. PROBALDIA

Lan-kontratuetan, bai mugagabeetan eta bai aldi baterakoetan, probaldi bat ezar daiteke. Honetan, enpresak bukatutzat eman dezake kontratua, probaldia gainditu ez dela justifikazio bakartzat hartuta eta inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

**Probaldiaren iraupena hitzarmen kolektiboak askatasunez ezartzen duena izango da.** Ezer adierazi ezean, legeak gehieneko iraupen bat ezarri du: gehienez 6 hilabete pertsona tekniko titulatuentzat eta 2 hilabete gainerako langileentzat (3 hilabete, 25 langile baino gutxiago dituzten enpresetan).

Kontuan hartu beharrekoa:

- Probaldiaren ituna **baliogabea** izango da baldin eta enpresa berean funtzio berberak aurretik bete badira, edozein kontratazio modalitaterekin.
- Probaldia **antzinatasunerako** kontabilizatuko da, aldi hori gainditu eta gero.
- Ekintzaileen kontratu** deritzanak, beraren lanbide-kategoria edozein delarik ere, **urtebeteko probaldia** du ezarrita legalki, Europako Gizarte Gutunaren erregulazioaren kontra joan arren (luzeegia delako).

### 4.3. HITZARMEN KOLEKTIBOA

Negoiazio kolektiboa askatasun sindikalaren praktikaren parte da, ekintza kolektiboa bideratzen duen tresna alegia. Izan ere, hitzarmen kolektibo baten bitartez erakunde sindikalek adosten dituzte lan baldintzak enpresari ordezkaritzarekin.

Beraz, hitzarmen kolektiboa enpresaren –edo enpresa ordezkatzen duten erakundeen- eta gehiengoaren ordezkaritza sindikalaren arteko idatzizko akordio bat da eta honen bitartez arautzen dira lan eskubide eta betebeharrak, nahiz interes kolektiboko beste gai batzuk.

Orokorrean, hitzarmen kolektiboaren aplikazioa derrigorrezkoa da jarduera ekonomikoaren eremuan sartuta dauden enpresa eta langile guztientzat. Hala, Langileen Estatutuan erregulatutako gutxieneko eskubideetatik harago eta araudian sartuta ez dauden eskubideak ere arautu ditzake.

Krisia aitzaki gisa hartu eta lan eskubideen aurkako ofentsibak **negoiazio kolektiboa ere jarri du jo puntuan**. Ofentsiba honen helburua da enpresa izatea lan baldintzak bere kabuz ezartzen dituen, modu unilateralean.

Hitzarmen kolektiboa lan-baldintzak hobetzen dituen borroka kolektibo eta sindikalaren emaitza izaten da beti. Ezin dugu zalantzarik izan: har dezagun parte negoiazio kolektiboaren eta hitzarmen kolektibo on baten alde zure enpresa edo sektorean egiten diren mobilizazio eta borrokan.

### 4.4. NOMINA ETA ORDAIN SARIA

Nomina ordainsariaren hileko ordainketa jasotzen duen dokumentua da. Bertan, hauxe geratzen da islatuta:

- Ordainsaria ordaintzen duen enpresaren eta ordainsaria jasotzen duen langilearen identifikazioa.
- Jasotako ordainsaria, berau osatzen duten kontzeptuen xehetasunekin.
- Gizarte segurantzaren kotizazio-oinarriak.
- Kenkariak eta likidazioak: gizarte segurantzari eta PFEZI (Ogasuna) egindako ekarpenak.

Ordainsaria puntualtasunez jaso behar da, adostutako epeetan, eta epe horiek ezin dira inoiz ere hilabetetik gorakoak izan. Ohikoaz gain, bi aparteko ordainsari (paga extra) jasoko dira. Zure ordainsariaren **zenbatekoa enpresan aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan aurkituko dugu**. Ez zalantzarik izan eta sindikatuan kontsultatu.

#### **4.5. LANALDIA**

Orokorrean, lanaldia hitzarmen kolektiboan adostutakoa izango da.

Gehieneko iraupena hauxe da: lan efektiboko 40 ordu astean, batez beste, urteko konputuan, eta gehienez 9 lanordu egunean (8 ordu 18 urtetik beherakoen kasuan), prestakuntzara zuzendutako denbora barne, horrelakorik dagoenean.

Lanaldi baten amaieraren eta hurrengoaren hasieraren artean 12 ordu pasatuko dira, gutxienez. Asteko gutxieneko atsedenaldia berriz, egun eta erdiko izango da, etenik gabe (2 egun, 18 urtetik beherakoen kasuan).

Enpresak lan-egutegia prestatu behar du urtero. Egutegi hori ageriko leku batean egon behar da ikusgai, lantokian.

Eguneko lanaldi jarraitua 6 orduetik gorakoa denean (4 ordu, 18 urtetik beherakoen kasuan), gutxienez 15 minutuko atsedenaldi bat egon behar da (30 minutu 18 urtetik beherakoentzat).

Bestalde, aparteko lan orduet dagokionez, **80 ordu borondatez burutzea legezkoa** da. Betiere jakinda borondatez baino askotan presiopean egitera derrigortzen direla elkartasun kolektiboari bizkar emanez.

#### **4.6. LANEKO OSASUNA**

Normalean, laneko osasunaren babesa kalte fisikoren bat pairatzeko arriskuarekin lotzen da. Hala eta guztiz ere, laneko osasuna harago doa eta bai kalte fisiologikoaren eta bai kalte psikologikoaren **prebentzioa** ere barne hartzen du.

Laneko istripuak eta gaixotasunak arazoaren alderdi agerikoena dira (izebergaren punta), baina badira azaleratzen ez diren beste hainbat egoera, hala nola produktu toxiko eta kantzerigenoekin lan egitea, zarata, zama handien manipulazioa, lan erritmoak, presioak, jazarpen-egoerak...

Laneko osasunaren babes eraginkorrak prebentzioari buruzko legedia betetzea eskatzen du, enpresen aldetik, arriskuak detektatzeko eta hauek murrizteko. Enpresak beharrezkoa den informazioa eta prebentzioa eman behar ditu, bai arrisku eta neurri prebentibo orokorreki buruz eta bai lanpostu bakoitzekoei buruz.

Osasunaren aurkako kalteak beti saihestu daitezke. **Ez da egia lan-istripuak zorte txarraren kontua direla**. Errealitate gordina da enpresek modu larrian hausten dituztela laneko osasunaren alorreko prebentzio eta segurtasun neurriak, betiere prekarietate egoeratik etekin ekonomiko eta produktibo handiagoa ateratzen dutelako.



#### 4.7. LAN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Hitzarmen kolektiboetan erregulatu litezkeenez gain, lan legediak eskubide eta betebeharrak aitortzen ditu:

##### **Eskubideak:**

- Gure lanaldia modu efektiboan betetzea.
- Lanbide-sustapen eta prestakuntza lantokian.
- Diskriminatua ez izatea.
- Osasuna errespetatzea eta laneko arriskuen prebentziorako politika egokia izatea.
- Gure intimitatea eta duintasuna behar den bezala errespetatzea.
- Dagokigun ordainsaria puntualtasunez jasotzea.
- Afiliazio sindikal librea.
- Greba.
- Bilera.
- Enpresan parte hartzea.

##### **Betebeharrak:**

- Gure lanpostuaren betebeharrak konkretuak betetzea.
- Lanera puntualtasunez heltzea.
- Legezko neurriak betetzea laneko arriskuen prebentzioaren alorrean, eta baita higiene pertsonalaren alorrean ere.
- Pertsona guztien duintasuna eta intimitatea errespetatzea, beren lanaren eremuan.
- Lanera ez goazenean, aurretik abisatzea eta gero absentzia justifikatzea.
- Aginduak eta jarraibideak betetzea, garatu beharreko jarduera gauzatzean.
- Produktibitatea hobetzen laguntzea.

## 5. LAN KONTRATUEN AMAIERA

Urtebetetik gorako kontratuen kasuan, enpresak kontratuaren amaiera idatziz jakinarazi behar du 15 eguneko aurre-abisuarekin. Horregatik, jakinarazpen hori jasotzean, garrantzitsua da jasotze-agiri bat sinatzea, aurre-abisua noiz entregatu den adieraziz.

Aurre-abisua egiteko betebeharrak bete ezean, enpresak kalte-ordain bat ordaindu behar du, bete gabeko epearen egunei legokiekkeen ordainsariaren adinakoa.

Aldi baterako kontratuaren amaierak (ordezkapen, laneratze eta prestakuntza kontratuetan izan ezik) kalte ordaina kobratzeko eskubidea ematen du: **12 egun lan eginiko urte bakoitzeko**. Kalte ordain hau likidazioan sartuko da.

Lan kontratua eta beraren amaiera ez direla legezkoak izan pentsatzen badugu, **20 eguneko epea dugu erreklamazioa aurkezteko** (jaiegunak kontatu gabe). Horrelakoetan, zatoz sindikatura.

### **5.1. KALERATZEA: 20 EGUN ERREKLAMATZEKO**

Enpresak lan harremanak edo lan kontratua bukatutzat ematea erabakitzen duenean, kasu guztietan derrigorrezkoa da langileoi horren berri ematea idatziz. Erabakia legalki justifikatzen duten kausak azaldu behar dira eta bi kasu nagusi daude:

**Kaleratze objektiboa:** kasu honetan, enpresak bukatutzat ematen du lan harremana arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenaren alorrekoak (krisia) argudiatuta. Kaleratze hauek kolektiboak direnean, **EEE** bat (Enplegua Erregulatzeko Espedientea) tramitatu behar da eta enpresako ordezkariak sindikalarekin negoziatu. Kaleratze hauen kasuan, kalte-ordaina hau da: 20 eguneko ordainsaria lan egindako urte bakoitzeko (aparteko ordainsariak barne sartuta), urtebeteko mugarekin.

**Diziplinazko kaleratzea:** enpresak gure lan kontratua bukatutzat ematen du, gure lan beharrak modu larrian hautsi ditugula argudiatuta, kalte ordaina jasotzeko eskubiderik gabe. Dena dela, kaleratzeko erabakiaren kontra **errekurtsoa jar daiteke auzitegian, 20 laneguneko epean (epe hau ezin daiteke luzatu) jakinarazpena egiten denetik kontatuta**. Horrelakoetan, zatoz sindikatura.

Kaleratzeari buruzko erreklamazioaren ostean, auzitegiak hau ere erabaki dezake:

**Bidezko kaleratzea izan dela erabakitzea.** Enpresak legalki kaleratu gaituela eta beraz ez dagoela inolako kalte ordainik kobratzeko eskubiderik.

**Kaleratze bidegabea:** enpresak ez ditu justifikatu edo frogatu gu kaleratzeko argudioak. Horrelakoetan, enpresak bi aukera izango ditu: kaleratutako langilea bere lanpostuan berriz onartzea edo kalte-ordain bat ordaintzea, hots, 33 laneguneko soldata lan egindako urte bakoitzeko, 42 hilabeteko soldata mugatuz hartuta. Kaleratua ordezkari sindikala izanez gero, berak izango du bi aukeren artean erabakitzeko eskubidea.

**Kaleratze baliogabea:** egiaztatzen denean kaleratzea sexu, nazionalitate edo aukera politikoagatik egindako diskriminazio batek eragindakoa dela. Kasu honetan, ondorioa da enpresak langilea berriz onartu behar duela, kaleratu zuenetik berriz onartu arte pasatu den denborari legezko ordainsariak ordainduta.

### **5.2. LIKIDAZIOA ETA FINIKITOA**

**Likidazioa** lanean emandako denboragatik langileok kobratu behar ditugun eta lan-harremana amaitzean kobratzeko falta diren zenbatekoak jasotzen dituen dokumentua da. Hilabete horretatik

kobratu gabe dauden egunak, hartu ez diren oporren zati proportzionala, langileari dagokion kalte ordaina... eta ordaintzeko dagoen beste edozein motatako zorra. Halaber, langabezia-prestazioa eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ere erantsiko zaio.

**Kitapen-agiri** edo **finikito** izenez ezagutzen den dokumentuan, likidazioaz gain adierazten da agiria sinatuz gero langilea ados dagoela kobratzen duen guztiarekin eta kontratuaren amaierarekin, eta, hortaz, uko egiten diola geroago erreklamatzeari. Horrenbestez, **ez da inoiz ere sinatu behar erreklamatzeari uko egiten zaiola dioen finikito bat, guztia ondo dagoela seguru egon gabe**. Ez da legezkoa enpresak likidazioaren kobrantza finikitoaren sinadurarekin baldintzatzea, uko egiteko klausularekin. Horrelakoetan, ez zalantzarik izan eta enpresako ordezkariak sindikalaren presentzia eskatu.

### 5.3. LANGABEZIA PRESTAZIOAK

Lan-harremana langilearen **borondatezkoak ez diren kausengatik** bukatzen bada, horrek langabezia prestazio bat kobratzeko eskubidea ematen du. Prestazio horren zenbatekoa eta iraupena kotizatutako denbora eta zenbatekoaren arabera izango da. Hortaz, lana modu boluntarioan uzten bada ez da aitortzen inolako prestazioa kobratzeko eskubiderik.

**Epea:** 15 eguneko epean eskatu behar da, lan-harremana langilearen borondatearen kontra-aldi baterako kontratuaren amaiera, kaleratzea, EEE...- bukatzen denetik kontatuta. Eskaria egiteko, derrigorrezkoa da enplegu eskatzaile gisa erregistratzea eta eskaria aldizka berrizatzea; bestela, prestazioa kobratzeko eskubidea galtzen da.

**Zenbatekoa:** Lehenengo 180 egunetan, oinarri arautzailearen %70. Gainerako egunetan, oinarri horren %50. Oinarri arautzailea legezko langabezia-egoeraren aurreko azken 180 egunetan langabeziatik kotizatutakoaren batez bestekoa da.

**Iraupena:** kotizatutako egunen arabera, ondorengo taulan adierazten den bezala:

<b>KOTIZAZIO EGUNAK</b>	<b>PRESTAZIO EGUNAK</b>
360 - 539	120
540 - 719	180
720 - 899	240
900 - 1.079	300
1.080 - 1.259	360
1.260 - 1.439	420
1.440 - 1.619	480
1.620 - 1.799	540
1.800 - 1.979	600
1.980 - 2.159	660
2.160 edo gehiago	720

Lanaldi partzalean lan egin bada, honela konputatzen da langabeziarako: lan egindako egun bat = kotizatutako egun bat.

Kotizazioak ez badira aski langabezia-prestazio kontributibo bat sortzeko (hau da, kotizazioa 12 hilabetetik beherakoa denean), **langabezia-sorospena** (diru-laguntza) eska daiteke.

**Zenbatekoa:** OAEAPren %80 (indize hori –Ondorio Anitzeko Errenta Adierazle Publiko- Estatua ezartzen du urtero) izaten da eta ez da Lanbide arteko Gutxieneko Soldatara heltzen.

**Iraupena:** kotizatutako egunen arabera, ondorengo taulan adierazten den bezala:

<b>KOTIZAZIO EGUNAK</b>	<b>SOROSPENAREN IRAUPENA</b>
Familia-ardurak izanez gero:	
90 eta 119 egun bitartean	3 hilabete
120 eta 149 egun bitartean	4 hilabete
150 eta 179 egun bitartean	5 hilabete
180 egun edo gehiago	21 hilabete
Familia-ardurarik gabe:	
180 egun edo gehiago	6 hilabete

## 6. EUSKAL HERRIAN LAN ETA BIZI, HEMEN ERABAKI!


Gaur egun, espainiar eta frantziar estatuak dira lanari buruzko legediaren gaineko eskumen eskusiboa dutenak. Estatu horiek egindako legeak dira gure lan-harremanen oraingo sistema arautzen dutenak, inposizioaren bitartez eta Euskal Herriko errealitate sindikal, sozial eta politikoa kontuan hartu gabe. Lan Harremanen eta Babes Sozialaren Euskal Esparrurik ez izateak defentsa-tresnarik gabe uzten gaitu lan-erreformek ekartzen dituzten inposizioen aurrean.

**Lan Harremanen eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua** aldarrikapen demokratiko bat da; beraren bidez euskal erabakitze-eremua exijitzen dugu alor sozio-laboralean. Euskal Herrian erabaki nahi dugu zer-nolako eredu izan nahi dugun alor honetan, alderdi hauei dagokienez: lan-harremanak, enpleguari buruzko politikak, prestakuntza, gutxieneko soldata, lanaldia, langabezia-prestazioak... eta baita gure pentsio sistema-publikoa ere.


Gaur egun, aldarrikapen hau euskal gehiengo sindikalak ere konpartitzen du. Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugu, eta bertan erabaki behar dugu gure lan harremanen eta gizarte babesaren ereduari buruz.

Borroka honetan gazteon parte hartzea ezinbestekoa da. Gure eskubideak borrokatuz, gure etorkizunaren jabe izateko tresneria lortu behar dugu, kapitalismoaren logika elikatu baino langileon interesei erantzungo dion ereduera eraikitzeko.

***ORAINA GARELAKO, EKIN BORROKARI!***







## ORAINA GARELAKO, EKIN BORBOKARI!

La participación de la juventud en esta lucha es esencial. Luchando por nuestros derechos lograremos las herramientas necesarias para ser dueñas de nuestro futuro, para construir un modelo que responda a los intereses de la clase trabajadora y no a los del capital.

Hoy esta reivindicación es compartida además por la mayoría sindical vasca. Vivimos y trabajamos en Euskal Herria, y es aquí donde tenemos que decidir nuestro modelo de relaciones laborales y de protección social.

El **Marco Vasco de Relaciones Laborales y de Protección Social** es una reivindicación de carácter democrático, y supone la exigencia del ámbito vasco de decisión en materia socio-laboral. Es en Euskal Herria donde queremos decidir nuestro modelo de relaciones laborales, las políticas de empleo, formación, salario mínimo, jornada, prestaciones de desempleo... así como nuestro propio sistema público de pensiones.

sindical, social y política de Euskal Herria. La falta de un Marco Vasco de Relaciones Laborales y de Protección Social nos deja sin instrumentos de defensa frente a las imposiciones que suponen las reformas laborales.

Actualmente los estados español y francés son quienes tienen competencia exclusiva en materia de legislación laboral. Son las leyes elaboradas por estos estados las que regulan nuestro actual sistema de relaciones laborales, vía imposición y sin tener en cuenta la realidad

## 6. EUSKAL HERRIAN LAN ETA BIZI, HEWEN ERABAKII

6 meses	180 o más días
21 meses	Sin responsabilidades familiares
5 meses	180 o mas días
4 meses	entre 150 eta 179
3 meses	entre 120 eta 149
	entre 90 y 119 días
	Con responsabilidades familiares
<b>DURACIÓN DEL SUBSIDIO</b>	<b>DÍAS DE COTIZACIÓN</b>

**Duración:** en atención al tiempo cotizado según esta tabla:

**Cuanta:** el 80% del IPREM (lo fija el Estado anualmente). Para hacerse una idea, la cuantía de este subsidio en el 2014 es de 426 euros/mes.

Cuando las cotizaciones sean insuficientes para generar una prestación contributiva de desempleo (cotización inferior a 12 meses) se puede optar al **subsidio del desempleo**.

